



520/2022 Ebazpena, ekainaren 20koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agindu baita argitaratu behar direla Osakidetzaren web-orrian 12 Lehentasuneko aldi baterako kontratazio-zerrenda behin betikoak (2011ko Kontratazio-zerrendetan indarrean daudenak), modalitate hauetan: A.1. lanbide-taldeko (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetzako zuzendari nagusiak azaroaren 28an emandako 4235/2008 Ebazpenaren bidez (EHAA, 232 zk., 2008ko abenduaren 3), onartu egin ziren Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko 2008ko Enplegu Publikorako Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak.

2008ko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko aldi baterako kontratazio-zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera arautzen dira (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6).

Martxoaren 29ko 325/2022 Ebazpenaren bitartez argitaratu ziren Osakidetzaren web-orrian 12 lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.**- Aldi baterako kontrataziorako 2011ko 12 lehentasuneko behin betiko zerrendak Osakidetzako web-orrian argitaratzeko agintzea, modalitate hauetan: A.1 (Fakultatibo Mediko-teknikoak) lanbide-taldeko lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Zerrenda horiek 2022ko ekainaren 21etik aurrera egongo dira indarrean.

**Bigarrena.**- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 20a

 Osakidetza  
Luisa Larrauri Ereñozaga  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA  
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

